



## KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN EBAZPENA, SANTUTXU FUTBOL TALDEAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA ONARTZEN DUENA

---

Esp. zk.: 42/2014

### AURREKARIAK

**LEHENEGOA.-** Santutxu futbol Taldeko idazkariak errekurtsoa jarri zuen (Federakundeak posta ziurtatuz 2014ko abenduaren 23an bidalia eta 2015ko urtarrilaren 8an 13344 zenbakiarekin erregistratua) Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak 2014ko abenduaren 10ean hartutako erabakiaren aurka.

**BIGARRENA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen, eta BASKONIA FERI jakinarazi zion, hiru laneguneko epean zegokion alegazio-idazkia aurkezteko eta, behar izanez gero, egokitzat jotako froga-izapideak proposatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Baskonia FEk egindako eskakizunari erantzun zion, 2015eko urtarrilaren 15ean erregistratutako idazkiaren bidez alegazio-idatzia igorritz.



## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**LEHENENGOA.-** Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoak, 4.1.b) eta 40.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, KJEBk du errekurtsio hau ebazteko eskumena.

**BIGARRENA.-** Aztergai dugun errekurtsioa Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak 2014ko abenduaren 10ean Baskonia eta Santutxu taldeen arteko topaketan, azaroaren 22an, izandako gertakariei buruz hartutako erabakiaren aurka aurkeztu da. Hona hemen erabaki horretan jasotakoa: "Santutxu E taldeari norgehiagoka galdutzat ematea eta sailkapeneko puntu bat kentzea aldaketei buruzko araudiari men egin gabe hamaikako bidegabea baliatzeagatik (15. G artikulua, 17.2 artikuluekin lotuta)".

Erabaki hori epailearen aktan jasotako gertakarietan oinarrituta hartu zen –azalpenen atalean adierazitakoaren arabera–; baina epaileak berak akta hori zuzendu zuen, joan den urteko abenduaren 27an Lehiaketa Batzordera igorritako idazki baten bidez.

Hona hemen idazkian adierazitakoa, hitzez hitz ["Testua. Aktan jasotako gertakariari dagokionez, soilik hamar minutuz jokatu zuen jokalariaren parte-hartzearen gainean honako hau adierazi nahi dut: 2014ko azaroaren 22an, Baskoniaren eta Santutxuaren arteko norgehiagokan, [REDACTED] [REDACTED] (45750560) Baskoniako entrenatzailea norgehiagoka bukatzean



epailearen aldagelara joan zen, SANTUTXU 02 E taldeko 7 ZAZPI zenbakia zeraman jokalaria, [REDACTED] (130669) azken 10 minutuak bakarrik jokatu zituela. Aktan horren berri jaso zen entrenatzailearen eskakizunari erantzunez, nik hori egiazki gertatu zen edo ez baieztatzeko tarterik izan ez nuelarik. Epailea."].

Baskonia FEk berriz, bere alegazio-idazkian, ezustekoa adierazi zuen aktan egindako aldaketaren gainean eta, hainbat gogoeta azaldu ondoren adierazi zuen "Batzordeak erabakitzen duena gorabehera, Baskonia FEk ez du errekurtsorik ez kexarik aurkeztuko (...)"

**HIRUGARRENA.-** Goian aipatutako Dekretuak hau xedatzen du 30. artikuluan: "1. Eskola-kiroleko lehiaketetako probak edo partidak direla-eta epaileek egindako aktak beharrezko frogagiri dira, bai eta akta horien luzapenak edo argitzeak ere, ofizioz zein diziplina-organoek eskatuta eginak.

2.– Arau-haustek hautemateari dagokionez, aipatu aktak zuzentzat hartzen dira. Hala ere, prozedurarako eta ebazpena emateko garrantzitsuak izan daitezkeen gertaerak egiazta daitezke, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabilita".

Aztergai dugun kasuan ikus daiteke epailearen idazkia –Lehiaketa Batzordera igorritakoa– ez dela 30. artikuluan aipatzen duen aktaren "luzapen" edo "argitze" bat, aurrez egindako gertakarien kontakizuna baliogabetzen duen beste adierazpen bat baizik, errotiko eta funtsezko aldaketa eragiten baitu edukietan; hori dela



eta, horren ondorio juridikoak aintzat hartu behar dira nahitaez errekurtsua ebazteko.

Hala, bada, Lehiaketa Batzordearen hasierako erabakia aktan idatzitakora doitu bazen ere, orain, KJEB honek kontakizun berria aintzat hartu behar du aztertzen duen errekurtsua ebazteko eta horrek errekurtsua onartzea dakar, izan ere, ez dago futbol-talde errekurtsogileak hamaikakoen inguruko araudia urratu zuela baieztatzeko frogarik; eta, hori, Baskonia FEk alegazioak aurkeztu dituen arren.

Hain zuzen ere, Batzorde honen arabera epaileak abenduaren 27an bidalitako idazkian adierazitakoak gailendu behar du, ezen, gainera, baliatutako igorpen-bidea –Lehiaketa Batzordetik KJEB honetara– berme nahikoa da idazkia jatorrizko, baliadun eta egiazkotzat jotzeko.

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, KJEB honek

## **EBATZI DU**

Errekurtsua onartzea eta Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak 2014ko abenduaren 10ean hartutako erabakia baliogabetzea; erabaki hartan, Santutxu E taldeari norgehiagoka galdutzat ematea eta sailkapenetik puntu bat



kentzea agindu zen, aldaketei buruzko araudiari men egin gabe hamaikako bidegabea baliatu zuela eta (15. G artikulua, 17.2 artikuluari lotuta).

Erabaki honek bide administratiboa agortzen du, eta horren kontra aukerako berraztertze-helegitea jarri ahal izango da Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpen-egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo, errekurtsogileek hala nahi badute, beren bizilekuari dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen-egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, xedatutakoaren arabera, beti ere.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 16an

Agurtzane Zangitu Osa

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA**